

AITA GABIREL ITZULTZAILE

Aita Gabirelek *Pisian* eta *Kimian* egindako lan gaitzak ezkutuan utzi du beraren itzulpen lana; izan ere, lan horiek egiteko, bai eta *Izadi-iztiari* buruz KARMEN'GO ARGIAN idatzirikoak mamitzeko, itzulpen lana ezinbesteko izan zuen lehen aitaturiko ataza esker-gari ekiteko.

Itaunak berez urtengo zuen honezkero: zelango itzultzailea genuen aita Gabirel? Ez makala, horratio! Egin-eginean ere, *jakinizti* zehatzen gainean jardun behar izan zuen oso garai zailetan.

Hala eta guztiz ere, gaitz jazoko zaigu haren lana epaitzea, baldin eta beraren garai-ko zertzelada batzuk aintzat hartzen ez baditugu: 1) oso garai garbizalean bizi izan zen, eta aukeratu zituen berbak aztertzerakoan horixe hartu behar dugu kontutan; barbarako, "Eletrizi ilkorra" argitaratu zuenean (KARMEN'GO ARGIAren 1933ko dagonilaren zenbakiko 252. orrialdetik 254.era) oinohar batean badio euskaraz *eletrizi* erabili behar dela *electricidaden* ordain gisa, baina *Pisian* *tximist(a)* darabil (zergatik aldatuko ote zuen artikuluhartan hain dokumentaturik azaldu zen iritzia?). Eta 2) aurrekoa ez ezik, eskuarteak oso urriak ziren garai horietan, hortaz, berak erabili ahal izan zituen hiztegiak garai hartara arte argitaraturikoak baino ez ziren, izan ere, Larramendirena, Azkuerena eta beste bakanen bat; horrek aditzera ematen digu oso lan neketsua erabili zuela esku artean, eta berak bere burutik ateratakoa, ia-ia bakarrik, islatu zuela (antzeko zerbait jazo zitzaion aita Ipolito Larrakoetxeari *Codex Iuris Canonici* itzuli zuenean).

Zer-nolako teknikak darabiltza aita Gabirelek bere itzulpenak egineran? Guk, lehenengo eta behin, zazpi teknika azalduko ditugu bertora: *mailegua*, *kalkoa*, *hitzez hitzeko itzulpena*, *transposizioa*, *modulazioa*, *baliokidetza* eta *egokitzapena*, izan ere, J. P. Vinay eta J. Darbelnet-ek *Stylistique comparée du français et de l'anglais* liburuan proposaturiko baliabideak dira horiek.

¹ Gabirel JAUREGI URIBARREN: *Pisia*, Gaubeka, Gazteiz, 1935.

Horiatariko guztiak darabiltza aita Gabirelek, baina ez ditu guztiak modu berdinean zenbatesten. Guk ez ditugu aintzat hartuko joskerari dagozkionak, eta berben inguruan dihardutenak bakarrik aztertuko ditugu bertan. Honetara:

a) **Mailegua** gutxienetan darabilen teknika dugu, elementu kimikoen taula eta izen bereziak emateko darabil gehienbat, bestela inoiz gutxitan, berbarako, *boro*, *Urano*, *bisiesto*...

b) **Kalkoa**: *labagarai* darabil *alto horno* adierazteko.

c) **Hitzez hitzeko itzulpena**: *alotropiaren* ordain gisa, *erabitz*a ematen du,

d) **Baliokidetza**: baliabide hau errefrau eta esakune ihartuak emateko bereziki erabiltzen bada ere, hainbatetan darabil aita Gabirelek, hala nola, *fuegos fatuos*en ordain gisa *argi(-)txakurra* darabil.

e) Horiek guztiak ez ezik, aita Gabirelek beste baliabide bat ere sarritan erabiltzen du: **Hizperrigintza**. Kontutan hartu behar dugu garai horretan oso gogor esten zitzaiea gaztelaniaren itxura edo kutsua zuten berba eta egitura guztiei; Uribe'ko Jaunak (aita Martin Uriarteren izenordea izanik) KARMEN'GO ARGIAren 1935eko urriaren zenbakiko 253. orrialdetik 256.era orrialdeetan giro horren berri ematen du. Bertara aldatuko ditugu berak erabilitakoetarik batzuk: *egazkin*, *argazki*, *aztiki*, *tximispizketa*...

f) **Berrezarpen lexikala** erabiliko du: *leia*, *aceleración* ordezteko.

g) **Zabalkunde semantikoa**: hor dugu, berbarako, *uraga bombaren* ordain gisa.

Horiek guztiek iradoki dezakete aita Gabirelen joera oso zabala zela garai hartarako, beti ere, hizkuntz baliabideak erabiltzerakoan.

Nolanahi ere den, beraren lanari egotz dakiokkeen akats bat aitatu gura nuke hemen ere: izan ere, oso jakintzagai zehatzak izanik, kontutan izan behar dugu horietan guztietan erabiltzen diren terminoak, guztiak ez badira, gehienak bederen, adiera bakarrekoak direla; hortaz, zehaztasunak berebiziko garrantzia du. Hori hala delarik ere, aita Gabirelek inoiz ordain bi edo gehiago ematen ditu kontzeptu jakin bat ordezteko, berbarako, *igazpide* eta *tximispide* emango ditu *conductor* terminoaren ordain gisa, eta gauza bera jazotzen da *indarkin* eta *sendokin* hitzekin, biak baitarabiltza *dinamómetro* esateko.

Eta, jakina! Itzulpen lanari badario lan terminologikoa: Horretara, aita Gabirelek hainbat berba aukeratu behar izan zuen beste hizkuntzetan aditzera ematen diren buruerak azaltzeko. Ondorik, *Pisia*, *Kimia* eta KARMEN'GO ARGIA euskararatu behar izan zituen berbetarik hainbat aldatuko ditut hona, parentesi artean *A* (Astronomia), *I* (Izadi-iztia), *K* (Kimia) eta *P* (Pisia) laburdurak daroatzatela, norbere erabileremukoa zein den azaltzeko. Horrezaz gainera, eta jakinmina piztuko duelakoan, *Kimiaren*² 47 eta 48. orrialdeetan argitaratu zuen “gorputz bakunen zerrendea” bertora aldatuko dugu.

Beude, beraz, aita Gabirelen ekarri lege jarraiko berbategi biak:

² Gabirel JAUREGI URIBARREN: *Kimia*, Gaubeka, Gazteiz, 1936.

A) JAKINTZAGAIETAKO BERBATEGIA

aceleración	<i>leitasun</i> (P)
acelerar	<i>leia</i> (P)
ácido	<i>garratz</i> (K)
acorde	<i>ereskide</i> (P)
Acuario	<i>Eurigiña</i> (A)
acumulador	<i>tximistandel</i> (P)
adherencia	<i>itsaspen, itsasindar</i> (P)
adunar	<i>batu</i> (K)
aeroplano	<i>egazkin</i> (P)
afinidad	<i>kidetasun</i> (P/K)
Aguila	<i>Arranoa</i> (A)
aire	<i>egurats, egutz</i> (P/K)
alcohol	<i>ugorki</i> (P/K)
almirez	<i>zaparri</i> (K)
alotropía	<i>erabitza</i> (K)
alótopo	<i>erabitzadun, erabiko</i> (K)
altavoz	<i>ozenkin, deadarkin</i> (P)
alternador	<i>aldizkin</i> (P)
alto horno	<i>labagarai</i> (K)
amarillo (Aramayona)	<i>laru</i> (K)
amarillo (ictericia)	<i>laru (laruena)</i> (K)
amorfo	<i>tankerage</i> (P)
amperaje	<i>sendotasun</i> (P)
ampere	<i>anpereki</i> (P)
Andrómeda	<i>Andromeda</i> (A)
anhídrido	<i>urge</i> (K)
antípodas	<i>gure-bestaldekoak</i> (I)
aplicación	<i>gaitasun</i> (K)
apogeo	<i>goren</i> (A)
arco iris	<i>Erromako zubi</i> (A)
aspirar	<i>zurrut-egin, edoski</i> (P)
astrónomo	<i>izarti</i> (A)
atacar	<i>eraso, eraso (ekin)</i> (K)
atmósfera	<i>egurats, egutz</i> (P/K)
atmósfera (unidad)	<i>sakaki</i> (P)
átomo	<i>kizi</i> (P/K)
atracción (terrestre)	<i>erakarpen</i> (P)
avidez	<i>lei</i> (K)
Balanza	<i>Aztakin</i> (A)
balanza	<i>aztakin, aztallu</i> (P/K)
balón	<i>ontzibilla</i> (K)
Ballena	<i>Lumare</i> (A)

bario (elemento)	<i>bari</i> (K)
barómetro	<i>sakaneurkin</i> (P)
base (función química)	<i>geza</i> (K)
bemol	<i>espeiki</i> (P)
bisiesto	<i>bisiesto</i> (A)
bivalente	<i>aldinbiko</i> (K)
bobina	<i>txaratil</i> (P)
bomba	<i>uraga</i> (P)
bomba centrífuga	<i>iges-uraga</i> (P)
bomba de compresión	<i>lurrun-zapallu</i> (P)
bomba de presión	<i>lurrun-zapallu</i> (P)
bombilla	<i>argontzi</i> (P)
bombilla eléctrica	<i>tximist-argontzi</i> (P)
borrar	<i>ezabatu</i> (K)
bóveda de horno	<i>labakorea</i> (K)
Boyero	<i>Itaurle</i> (A)
bromo (elemento)	<i>bormo</i> (K)
bujía	<i>argiki</i> (P)
bureta	<i>aldatontzi, burete</i> (K)
cadena	<i>estuntza</i> (K)
caldera	<i>pertz</i> (P)
calendario	<i>egutegi</i> (A)
caloría	<i>beroki</i> (P)
Cannis Maior	<i>Txakur Aundi</i> (A)
Cannis Minor	<i>Txakur Txiki</i> (A)
canutillo, a	<i>azalodiz</i> (I)
capacidad	<i>armen</i> (P)
capacidad elemental, aplicación	<i>gaitasun</i> (K)
carbono	<i>ikazkai (ikazgai, ikatz-gai)</i> (K)
Carnero	<i>Ari, Ariki, Arito</i> (A)
casco telefónico	<i>entzukin</i> (P)
Casiopea	<i>Kaxiope</i> (A)
cebar	<i>urasetu</i> (P)
central eléctrica	<i>tximistola</i> (P)
centrifugadora	<i>irigestallu</i> (K)
Ceres	<i>Ceres</i> (A)
ciencia	<i>izti</i> (P)
cinta	<i>girgil, gigde (gige-edo)</i> (P)
circuito	<i>tximispidabil</i> (P)
clase	<i>mota</i> (K)
cloro (elemento)	<i>kolor</i> (K)
Cochero	<i>Burtzain</i> (A)
cohesión	<i>eraspen</i> (P)
color	<i>margo</i> (P/K)

combinación	<i>alkarketa</i> (K)
combustible	<i>errekin</i> (K)
cometa	<i>buztandun-izar</i> (A)
comida	<i>jaki</i> (K)
compuesto	<i>alkartu, askar</i> (K)
condensador	<i>estukin</i> (P)
conductor	<i>igazpide, tximispide</i> (P)
conservación	<i>irauntze</i> (K)
constante	<i>aldakaitz</i> (P)
constelación	<i>izarti</i> (A)
constitución	<i>eraketa</i> (K)
contracción	<i>estumen</i> (P)
copa de cristal	<i>txola</i> (K)
corcho	<i>txorko</i> (K)
corroer	<i>eraso</i> (K)
creación	<i>izadi</i> (P)
crisol	<i>sutontzi</i> (K)
cristal	<i>tankeradun, leiar</i> (P/K)
cristalizar (tankeratu)	<i>leiartu</i> (K)
cuerpo compuesto	<i>alkartu</i> (K)
cuerpo simple	<i>bakar (ekar, bakun)</i> (K)
choque	<i>tril</i> (P)
densidad	<i>bestazta</i> (K)
despojar	<i>murritu</i> (K)
destilación	<i>lurrunurtz, jarion</i> (P)
destilar	<i>jariondu</i> (K)
detector	<i>azterkari, azterkin</i> (P)
detectora	<i>azterkontzi</i> (P)
diáfano	<i>garden</i> (P)
diálisis	<i>igaz-banaketa</i> (P)
diamante	<i>ikatzarri</i> (K)
diapasón	<i>erestortz</i> (P)
diatermano	<i>bero-igarokor</i> (P)
diccionario	<i>iztegi</i> (P)
digestión, por	<i>txegosiz</i> (P)
dilatabilidad	<i>azkortasun</i> (P)
dilatación	<i>azkorketa</i> (P)
dinámica	<i>indarrizti</i> (P)
dinamómetro	<i>indarkin, sendokin</i> (P)
dirección	<i>joera</i> (P)
disolvente	<i>urtzari</i> (P)
divisibilidad	<i>atalgaitasun</i> (P)
doble refracción	<i>auste bikotx</i> (P)
Dragón	<i>Suge</i> (A)

ductilidad
 dureza
 eclipse parcial
 eclipse total
 eco
 ecuador
 elasticidad
 elástico
 electricidad
 electrodo
 electrólisis
 electrolumínica
 electroscopio
 elemento
 elemento de vibración
 émbolo (pistón)
 embudo
 emisora
 empírico
 engranaje
 entraña
 equilibrio
 escala musical
 escudete, a
 espacio recorrido
 espectro
 espectroscopio
 espejo cóncavo
 espejo convexo
 espejo esférico
 espira
 espiral
 estado
 estado gaseoso
 estado líquido
 estado sólido
 estante
 estática
 estrella fugaz
 éter
 evaporación
 excitación
 exhuberante
 explosivo

luzakortasun (P)
 gogortasun (P)
 illunaldi erdi (A)
 illunaldi oso (A)
 oiartzun (P)
 lurraren gerri zabal (A)
 lenerakortasun (P/K)
 lenerakor (P)
 tximist, tximista (P/K)
 tximispide (P/K)
 tximispanaketa / tximis-banaketa (P/K)
 tximistargizti (P)
 tximist-salakin (P)
 bakar (ekar, bakun) (K)
 dardarkal (P)
 zipotz, zapotz (P)
 onilla (K)
 bidalkin (P)
 egitezko (K)
 lokari (P)
 errai (K)
 ureka, ureke, oreka (P)
 ereskitza (P)
 azalbegiz (I)
 bidarlo (P)
 argilitza (P/K)
 litzikuskin (P)
 antzikur (ispillu) unbel (P)
 antzikur (ispillu) ganbil (P)
 antzikur (ispillu) borobil (P)
 kirmil (P)
 kiribil (K)
 egoera (K)
 lurrunkera (K)
 iñoskera (K)
 legorkera (K)
 balda (K)
 geldizti (P)
 izar galdu (A)
 ezeruts (P)
 lurruntze (K)
 zirikatze (P)
 aunitz (P)
 lerti (P)

fase	<i>aldarte</i> (P)
fenómeno	<i>jazokun</i> (P)
fermentación	<i>artziketa</i> (K)
filamento incandescente	<i>algori</i> (<i>ari gori</i>) (P)
filtro	<i>irazki, iraztontzi</i> (K)
filtro de papel	<i>iraztortzi</i> (K)
flúor	<i>pulor</i> (K)
forma cristalográfica	<i>tankera</i> (P)
formación	<i>eraketa</i> (K)
fórmula	<i>eratikur</i> (K)
formulación	<i>eratikurtze</i> (K)
fósforo	<i>posporo</i> (K)
fotografía	<i>argazki</i> (K)
fotón	<i>suzki</i> (P)
fragilidad	<i>auskortasun</i> (P)
frasco lavador	<i>ikuztontzi</i> (K)
frecuencia	<i>sarritasun</i> (P)
fuegos fatuos	<i>argitxakur</i> (K)
fuerza centrífuga	<i>igesindar</i> (P)
función química	<i>kimi-senitarte</i> (K)
galería	<i>zearbide</i> (K)
galvanoplastia	<i>tximispizketa</i> (P)
Ganso	<i>Antzarra</i> (A)
gas	<i>laspei, laspel</i> (K)
Gemelos	<i>Bikotxak</i> (A)
giroscopio	<i>birazterkin, biltzainkin</i> (P)
globo aerostático	<i>egutontzi</i> (P/K)
grado (calor)	<i>beromalla, bero-malla</i> (P)
gramo	<i>aztaki</i> (P)
gramo-fuerza	<i>indarki</i> (P)
gramo-peso	<i>aztaki</i> (P)
hacer inatacable	<i>ekinezindu</i> (K)
hedor	<i>sunda</i> (K)
hélice	<i>biorri</i> (P)
Hércules	<i>Hercules</i> (A)
hidrácido	<i>urgarratz</i> (<i>ur-garratz</i>), <i>urgai</i> (K)
hidrocarburo	<i>urgaikatz</i> (K)
hidrógeno	<i>urgai</i> (K)
hidrología	<i>iñoskizti, lobelizti</i> (P)
higrómetro	<i>ezeneurkin</i> (P)
huella	<i>lorratz</i> (K)
humedad	<i>ezotasun</i> (K)
ictericia	<i>laruena</i> (K)
incoloro	<i>margoge</i> (K)



inducido
 inductor
 influencia
 infusión, por
 inoxidable
 instalación
 instrumento acústico
 instrumento músico
 intensidad
 interferencia
 interruptor
 invariable
 invertido
 juntar
 Júpiter
 kg
 kilo
 kilogrametro
 kilogramo
 kilómetro
 Labrador
 lagar
 lámpara
 lámpara amplificadora
 lana
 lejía
 León
 letra
 lexivación, por
 licuación
 líquido
 Lira
 litográfica
 luz polarizada
 llano
 macerar
 mal olor
 maleabilidad
 manómetro
 mantequilla
 máquina
 máquina de vapor
 marea
 Marte



eragille (P)
eragipen (P)
ixuriz (P)
ordeiezin (K)
ezarketa (P)
otsontzi (P)
ereskin (P)
sendotasun (P)
alkarganaketa (P)
etenkari (P)
aldakaitz (P)
itzuli (P)
batu (K)
Jupiter (A)
indarki (P)
anaztaki (K)
len-neurki (P)
sendoki (P)
anei-neurkin (P/K)
Lugiña (A)
dolare (K)
argontzi, garrontzi, suontzi (P/K)
geikorrontzi (P)
artille (K)
lexi (K)
Leoi (A)
irarrizki (K)
narrastuz (P)
iñostze, lobeltze, urtze (P)
lobel (P/K)
Lira (A)
idatzarri (K)
izpi zoratu (P)
zelai (P)
beratu (P)
sunda (K)
zapalkortasun (P)
sakaneurkin (P)
gurin (K)
langallu, tresna (P)
lurrunkin (P)
itsasaldi (I)
Ilhunkerako Izar (A)

masa	<i>ore</i> (K)
matraz	<i>lepontzi</i> (K)
mecánica	<i>igikunizti</i> (P)
mecha	<i>biurrari</i> (K)
mercurio	<i>urrebizi, zidarbizi</i> (K)
metaloide	<i>metalantzeko</i> (K)
meteoro	<i>izar-igikor</i> (A)
método de obtención	<i>jarispide</i> (K)
mezcla	<i>naste</i> (K)
microscopio	<i>zikuskin</i> (P)
mineral	<i>mea</i> (K)
minuto	<i>iroiren</i> (P/K)
molécula	<i>ela</i> (P/K)
monovalente	<i>aldinbateko</i> (K)
mordedura	<i>usegi</i> (K)
morder	<i>usegi</i> (K)
motor	<i>buzkin, eraingi</i> (P)
motor de explosión	<i>lerkin</i> (P)
movimiento	<i>igikune, igi</i> (P/K)
movimiento oscilatorio	<i>kulunka-igi, dindon-igi</i> (P)
mucho	<i>aunitz</i> (P)
multiplicar	<i>zenbakoiztu</i> (P)
naturaleza	<i>izadi</i> (P)
Neptuno	<i>Neptuno</i> (A)
nervio	<i>kirio</i> (K)
nitrógeno	<i>gezalgai</i> (K)
nivel (instrumento)	<i>bardinkai, ostertzikur</i> (P)
nivelado	<i>zelai</i> (P)
normal (línea o plano)	<i>alkar-zutun</i> (P)
nota musical	<i>ereski</i> (P)
núcleo del transformador	<i>burtigun</i> (P)
obtención	<i>jarispide</i> (K)
ohmio	<i>Ohm'ki</i> (P)
onda	<i>kulunka, dindon (Oñati)</i> (P)
orina	<i>garnu</i> (K)
Orión	<i>Orion</i> (A)
Osa mayor	<i>Artz aundi</i> (A)
Osa menor	<i>Artz txiki</i> (A)
oscilación	<i>kulunka, dindon (Oñati)</i> (P)
oscilación longitudinal	<i>luzera-kulunka, luzera-dindon</i> (P)
oscilación transversal	<i>zear-kulunka, zear-dindon</i> (P)
ósmosis	<i>igazketa</i> (P)
oxácido	<i>ordei-garratz</i> (K)
oxidante	<i>ordeikari</i> (K)



oxidarse (Aramayona)

óxido
 oxígeno
 pedernal
 película
 péndulo
 penumbra
 perduración
 perigeo
 período
 período de vibración
 Perseo
 pesa
 peso
 peso absoluto
 peso atómico
 peso específico
 peso específico (relativo)
 peso relativo
 petróleo
 pila hidroeléctrica
 piñón
 pipeta
 planeta
 plano inclinado
 platino
 plomo
 Polar
 polea
 polo norte
 polo sur
 pólvora
 polvos explosivos
 potasio
 pozo artesiano
 prensa hidráulica
 presión
 prisma
 prisma diáfano
 probeta
 propagación
 propiedad
 proporción
 puro



orde (K)

ordeigai (K)
 sukarri (K)
 girgil, gigde (gige-ed) (P)
 dindil, eseki (P)
 erdi-itza (P)
 irauntze (K)
 beren (A)
 eten-alde (P)
 dardaraldi (P)
 Perseo, Perxe (A)
 aztakin, aztallu (P/K)
 azta (K)
 berekiko-azta (P)
 kizi-azta (K)
 besterekiko azta (P/K)
 besterekiko azta (K)
 besterekiko-azta (P)
 argaimel, arrorio (K)
 tximistontzi (P)
 txirrika (P)
 zurrutontzi (K)
 izarbel, izarbeltz (A)
 terrexka (P)
 urre-zuri, zidardun, zidardin (P/K)
 berun (K)
 Buru (A)
 pirringil (P)
 iparburu (A)
 egoburu (A)
 ler-autsak, lerki-auts (lerkaus) (K)
 ler-autsak (K)
 kali (K)
 oxin iturri (P)
 ur-zapaldu (P)
 saka (P)
 lebar, ziri (P)
 ziri garden (P)
 ikustontzi, porbeta (K)
 edazte (P)
 zeindasun, zeintasun (P/K)
 eintsu (K)
 kutsuge (K)

quintal	<i>arratz</i> (P)
racional	<i>bidezko</i> (K)
radiotelefonía	<i>irrezkintza</i> (P)
rayo	<i>izpi zoratu</i> (P)
rayo incidente	<i>izpi jausi</i> (P)
rayo reflejado	<i>izpi jagi</i> (P)
reacción química	<i>kimi-eraso</i> (K)
receptor	<i>artzallu</i> (P)
receptora	<i>bildukin</i> (P)
rectificadora	<i>artezkontzi</i> (P)
reductora	<i>jankari-gar</i> (K)
reflexión	<i>goma, babol</i> (P)
reflexión total	<i>goma oso, okerketa oso</i> (P)
refracción	<i>auste</i> (P)
refracción total	<i>auste oso</i> (P)
refringente	<i>austzalle</i> (P)
regilla [sic]	<i>saratxo</i> (P)
reloj de sol	<i>eguzkizko erloju</i> (A)
rendimiento	<i>ekoizpen</i> (P)
resistencia	<i>eragozpen, muker, mukertasun</i> (P)
resonancia	<i>durundu</i> (P)
retardo	<i>luzapen</i> (P)
roce	<i>igurtzi</i> (P)
Sagitario	<i>Azkondunaga, Azkonaga</i> (A)
salado	<i>gazi</i> (K)
salitre	<i>gezal</i> (K)
sarritasun	<i>frecuencia</i> (P)
satélite	<i>izartxobel</i> (A)
saturado	<i>asebete</i> (K)
saturar	<i>asetu</i> (K)
Saturno	<i>Saturno</i> (A)
segundo	<i>aldiki, segundo</i> (P/I)
separar	<i>berezi</i> (K)
sifón	<i>urzubi</i> (P)
silicio	<i>sugarraigai, suarraigai, sukarraigai</i> (K)
símbolo	<i>ikur</i> (K)
símbolo (atómico)	<i>ikur</i> (K)
símbolo molecular (fórmula)	<i>ela-ikur</i> (K)
simple	<i>bakun, ekar</i> (K)
simple (cuerpo) (elemento)	<i>bakun</i> (K)
sirena	<i>turutu</i> (P)
sodio	<i>natir</i> (K)
solenoides	<i>tutubil</i> (P)
solidificación	<i>legortze</i> (P)

sólido	<i>legorki</i> (K)
sonando	<i>oska</i> (P)
sonido	<i>ots</i> (P)
soplete	<i>gar-auspo, puzkin</i> (K)
sostenido	<i>eskoiki</i> (P)
submarino	<i>urponti</i> (P)
Tahali	<i>Tahali</i> (A)
Taurus	<i>Zezena</i> (A)
teléfono	<i>urrutizkin</i> (P)
telégrafo	<i>urrutidazkin</i> (P)
temperatura	<i>bero-giro</i> (P)
templar (suberotu)	<i>girotu</i> (K)
temple	<i>suberotze</i> (P)
tenacidad (tensión)	<i>zailtasun</i> (P)
tensión	<i>zailtasun</i> (P)
termómetro	<i>beroneurkin (bero-neurkin), bero-neurtallu</i> (P)
tetravalente	<i>laualdiñeko</i> (K)
timbre	<i>tirrin</i> (P)
timbre de la voz	<i>oskera</i> (P)
timón	<i>endaitz</i> (P)
tipo de imprenta	<i>irarizki</i> (K)
tonelada	<i>upaki</i> (P)
torno	<i>bilgin</i> (P)
transformador	<i>aldakin</i> (P)
transparente	<i>garden</i> (P)
tren	<i>suburdi</i> (P)
trifásico	<i>irualdizko</i> (P)
trivalente	<i>irualdiñeko</i> (K)
tubo (tutu)	<i>odi, tutu</i> (K)
tubo aspirante	<i>edoski-tutu, zurrut-tutu</i> (P)
turbina	<i>turtuki</i> (P)
turbina de vapor	<i>lurrut-turtuki</i> (P)
unidad	<i>bateko</i> (P)
unirse combinándose	<i>alkartu</i> (K)
universo	<i>izadi</i> (P)
Urano	<i>Urano</i> (A)
valencia (atómica)	<i>aldin</i> (K)
valencia química	<i>aldin</i> (K)
vaporación	<i>lurruntze</i> (P)
variable	<i>aldakor</i> (P)
velocidad	<i>arintza</i> (P)
veneno	<i>eden</i> (K)
Venus	<i>Goizeko Izar</i> (A)
vianda	<i>jaki</i> (K)

vibración	<i>dardar</i> (P)
vibrador	<i>dirdiraentzukin, dirdira-urruzizkin</i> (P)
vidrio	<i>leiar</i> (K)
violado	<i>ubel</i> (K)
Virgen	<i>Gizkarbi</i> (A)
virtual	<i>irudizko</i> (P)
volátil	<i>lurrunkor</i> (P/K)
voltaje	<i>zailtasun</i> (P)
voltímetro	<i>Bolta' kin, Boltaneurkin</i> (P)
voltio	<i>bolta' ki</i> (P)
vuelta	<i>bira</i> (K)
Yunta de bueyes	<i>Buztarriadiak</i> (A)

Hurrengo badoa lehen aitaturiko *gorputz bakanen zerrendea*. Esan beharra dago, baina, ez dudala bertora aldatuko berak jarri zuen hurrenkeran, ezpada alfabetoaren arabera:

B) GORPUTZ BAKUNEN ZERRENDEA

aluminio	<i>alumini</i>
arsénico	<i>artsen</i>
azufre	<i>sulbur</i>
bario	<i>bari</i>
boro	<i>boro</i>
bromo	<i>bormo</i>
cadmio	<i>kami</i>
calcio	<i>karegai</i>
carbono	<i>ikazgai</i>
cloro	<i>kolor</i>
cobalto	<i>kobalto</i>
cobre	<i>burdingorri</i>
cromo	<i>kormo</i>
estaño	<i>estañu</i>
flúor	<i>pulor</i>
fósforo	<i>posporo</i>
hidrógeno	<i>urgai</i>
hierro	<i>burdin</i>
litio	<i>liti</i>
magnesio	<i>manesi</i>
manganeso	<i>manganeso</i>
mercurio	<i>urrebizi</i>
níquel	<i>nikel</i>
nitrógeno	<i>gezalgai</i>
oro	<i>urre, urregorri</i>
oxígeno	<i>ordeigai</i>

plata	<i>zidar, urrezuri</i>
platino	<i>zidargoi</i>
plomo	<i>berun, belun</i>
potasio	<i>kali</i>
radio	<i>radi</i>
selenio	<i>seleni</i>
silicio	<i>siliki</i>
sodio	<i>natir</i>
teluro	<i>teluri</i>
zinc	<i>zin</i>

Orrialdeotara ekarri ditudanak ez dira lagin xumea baizik, ze *Pisia* eta *Kimia* liburuetan barrena bezala KARMEN'GO ARGIAN zehar itzuli behar izan zituen jakintzagaietako kontzeptuak askozaz ugariagoak izan ziren.

Edozelan ere, nik aita Gabirelen itzulpen lanaren ezaugarri behinenetarikoa azaldu nahi izango nuke: maileguak hartueran, ez du gaztelaniara jotzen, ezpada nazioarteko ikur-rren jatorrizko hizkuntzetara, zein diren grekera eta latina, barbarako, *natir* deritzo *sodiori*. Gaur egun mailegutuzan jardun behar dugunean aitatzen den irizpidea bereganatua zuen orduko aita Gabirelek, hau da, *jatorrizko hizkuntzetara joatea, eta ez alboerderetara*. Horrezaz gainera, badago beste ezaugarri bat: *gorputz bakun* batek mundu zabalean izen bat badu, berak ere hori erabiliko du euskaraz, hala nola, *manganeso*. Azkenik, hizkuntzek, berba bat mailegatueran, hitz hori bertoko hizkuntzaren ordain batez ematen dutenean, orduan berak ere bertokotu egingo du hori, barbarako, *urrebizi, burdingorri, zidargoi...*

Beraren itzulpen lana zenbatetsieran, ona ez ezik, berak hartzen dituen jardueretarik hainbatetan ereduzkoa dela esango nuke nik. Beraren garaitik aurreratxoago ibiltzeak, baina, zenbait buruhauste sortu zion, bai eta lantzean behin atzera egin beharra ere. Saiotxo honetara aldatu ditudan berbak, gorago esan bezala, ez dira guztiak, ez eta gutxiago ere, baina lagin ordezkatzaila delakoan nago.

Azkenik, historiarekin zer ikusirik duen jazoera bat aitatu nahi dut: aita Gabirelek gudatean Eusko Jaurlaritzarekin batera egin zuen lana; izan ere "gerraldian, zazpi hilabeteetan zehar, Aramaio haraneko zenbait parrokiaren ardura hartu zuen. 1936.eko urriaren 28an Eusko Jaurlaritzak deitua izan zen eta Grazia eta Kulturako ministeritzan euskal testuen idazle ofizial izendatu zuten, izendapena Aramaioko bederatzi preso herritar Bilboko espetxeetan askatzeko erabili zuela"³. Euskal administrazioan euskal testuak jorratzen jardun zuen, baina zoritxarrez ezin izan dut berak garai horretan idatziriko testuetarik batere lortu.

Izan bedi, lantxo xume hau aita Gabirel Jauregi Uribarren zenaren omenaldia gaur egun itzulpenak egiten dihardugunongandik.

Anjel Lobera Revilla
Bilbon, 1995eko otsailaren 9an

³ Julen URKIZA TXAKARTEGI: *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Ediciones El Carmen. Bilbo, 1992, 421. or.